



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Francisco Michelena Celayeta.
Leire Bazterrika Loiarte.
José Maria Michelena Erasun.
Ezequiel Loiarte Santesteban.

2018ko abenduaren 17an, 18:30etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 bilkuretako aktei, zehazki irailak 14ko ohiko bilkurakoari eta urriak 3ko ez ohiko bilkurakoari. Inork ez du azalpenik egin eta Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5
Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du: Aurreko bilkuretako aktak onartzea.

2. 2019KO AURREKONTUA.

Udalburuak Kontu-hartzaileari hitza eman dio, honek zinegotziei behar diren azalpenak emateko. Aipatzekoa da Kontu-hartzaileak gastu arauaren inguruan egiten duen argipena, aurkeztutako aurrekontuekin betetzen ez bada ere, urtea aurrera joan ahala egoera hau aldatuz joango dela eta araua beteko dela esan du. Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5
Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du:

- 1.- 2019ko Aurrekontua onartzea.**
- 2.- 2019ko Aurrekontua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

3. 2019KO PLANTILLA ORGANIKOA.

Idazkariak 2019ko Plantilla Organikoa aurkeztu egin du. Zehazki, 2019ko Plantilla hau 2018ko Plantillaren berdina da.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5
Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du:

- 1.- 2019ko Plantilla Organikoa onartzea.**
- 2.- 2019ko Plantilla Organikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

4. 2019KO ZERGA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Idazkariak 2019ko zerga, tasa eta prezio publikoak aurkeztu egin ditu. Aurkeztutako 2019ko zerga, tasa eta prezio publikoak, 2018koen berdinak dira.

Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5
Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du:

- 1.- 2019ko zerga, tasa eta prezio publikoak onartzea.**
- 2.- 2019ko zerga, tasa eta prezio publikoak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

5. AURKIDIKO BIDEKO OBRAK ARAUTUKO DITUEN PLEGU ADMINISTRATIBOA.

Idazkariak Aurkidiko Bideko zola hormigoiez egiteko kontratazioa arautuko duen plegu administratiboa aurkeztu du.

Idazkariaren azalpenen ondoren, gonbidatuko diren enpresak hurrengoak izango direla adosten da, eta hauei lekura bisita egiteko aukera emango zaiela ere, Martin Mindegia teknikariarekin, abenduaren 21ean goizeko 09:00etan:

- Ubiria.
- Altugarai.
- Sasoi.
- Joarbe.
- Mariezcurrena.
- Apezetxea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Azalpen eta adostasun hauen ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5
Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du:

- 1.-Aurkidiko Bideko obrak arautuko dituen Plegu Administratiboa onartzea.**
- 2.- Adostutako enpresei lizitaziora gonbidtzea.**

6. OIHAN APROBETXAMENDUAK: AIELETA. ESKAINTZAREN IREKIERA.

Oihan aprobetxamendurako proposamen itxi bat dago. Idazkariak proposamena ireki eta 12.600,00 eurokoa dela helarazten die bilkurako kideei. Gainera proposatzaileak "Caja Rural de Navarra"-n egindako fiantzaren ziurtagiria aurkeztu duela eta paratutako baldintzekin bat datorrela ziurtatzen du Idazkariak.

Azalpenen ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5
Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du:

- 1.-Aieletako oihan aprobetxamendua Francisco Alzuri Vertiz jaunari ematea 12.600,00 euroren truke.**
- 2.-Akordia ineresdunei helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.**

7. PEAU, EVA M^a ELIZALDE TELLETXEA.

Idazkariak Ernestori eztabaida eta bozketatik atera behar dela oroitarazten dio, aztertutako gaian eta 40/2015 legearen 23.artikuluaren arabera interesdun baita.

Ernesto aretotik atera ondoren, lehendakariordeak bozkatzera deitu du.

Alde 4.
Abstentzioak 2

Udalbatzak erabaki du:

- 1.-PEAU-ari behin betiko onespina ematea.**



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2.-PEAU-aren behin betiko idaztea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- Akordioa interesdunei helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

8. ESKAERAK.

Idazkariak eskaerak irakurri egin ditu.

1.- Tuterako Argia Ikastolako Nafarroa Oinez.

Alde 5

Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du: Tuterako Argia Ikastolan antolatuko den Nafarroa Oinezi 50 euroekin diruz laguntzea.

2.- “Korrika”.

Alde 5

Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du: Aek-k antolatzen duen “Korrika” ekintzan herriko gazteekin batera Zubietatik pasatzen den kilometroa erdi bana erostea.

9. ALKATE JAUNAREN EBAZPENAK.

Idazkariak aurreko bilkuratik hona izan diren ebazpen guztiak (55. ebazpenetik 70. ebazpenera arte) irakurri ditu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

10. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Jarraian, agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali den egur loteen marka egiteko eskaera; Nafarroako Gobernura bidali diren plantatzeko baimen eskaerak —Pedro José Hualde Indacoechea eta Juan Luis Loyarte Santesteban— Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduen baimen eskaerak —Maderas Santesteban S.L., Juan Perochena Perochena, Severiano Iparraguirre Mutuberria, Lorenzo Santesteban Baleztena, Manuel Santesteban Loyarte, Mari Carmen Bendoiro Ormaechea, Pedro Jesús Santesteban Santesteban, M^a Rosa Echecolonea Escudero, M^a José Vera Jauregui, Juan Miguel Vera Jauregui, Manuel Vera Aleman, Izakun Santesteban Baleztena—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

aprobetxamenduak —Pedro Jesús Santesteban Santestebani, Mari Carmen Mariezcurrena Ezcurra, Leire Mariezkurrena Perotxena, Pedro José Hualde Indacoehea, Ignacio Juanicorena Indacoechea, Lorenzo Santesteban Baleztina, —; Nafarroako Gobernuak eman duen baso aprobetxamendurako bigarren luzapena —Maderas Santesteban S.L.-ri—; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako Ebazpenak, 2018ko irailak 26koa, Josefa Loyarte Elizalderi txabola eraikitze baimena eman ziona eta urriak 3koa M. Carmen Mariezcurrenari baimena eman ziona baso aprobetxamendua ateratzeko; Nafarroako Osasun Publikoaren eta lan Osasunaren Institutuak egindako ur-analisien kontrolaren txostena (AM1806876); Nafarroako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak emandako sastrakak erretzeko baimen luzapena; NUKF-ak puzgarri ekipoak baimendu, instalatu eta martxan jartzeko bidalitako protokoloa; Iruñako Jabetasunaren erregistroak aldameneko garen heinean helarazitako komunikazioa.

2. Alkateak hitza hartu eta gai hauek azaldu ditu:

-Libre xedatzeko diru-laguntzak: Martín Mindeguiak prestatutako balorazio teknikoa. Udalburuak, idazkariari hau abiarazteko eskaera egin dio.

-HELPBIDEA: Udalburuak egungo egoera zein den azaldu du. Orain identifikazio karteekin aurrera egin behar da.

-Zubietako paraje desberdinetan dauden bi borden egoera, zehazki haietan egin diren obra eta instalakuntzen inguruan.

-Doneztebeko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren egoera. Aurten ez da derramarik izanen baina 30.000 euroko obra aurreikusten da.

-Inauterietarako gazteei emanen zaien 500 euroko dirulaguntza.

11. PROPOSIZIOAK.

Udalburuak hurrengo gaiak, gai ordenean sartzearabaki du aurretik informaturik egon ez badira ere. Toki Administrazioaren Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 82.3. artikulua araberak Udalbatzak gai ordenean sartzearaberietsi ondoren, hurrengo adosten da:

11.1.- Gorospillagako zain-iraulien truke zeuden bi proposamenak ireki ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5

Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du:

1.-Juan Luis Loyarteri ematea 201,00 euroren truke, Batixta Loyarterena baxuagoa baitzen (178,00 eurokoa).

2.-Akordioa interesdunei helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

11.2.- Balorazio ponentziarekin jarraitu beharra. Erakustaldi publikoan egon ondoren eta alegaziorik ez denez izan **Udalbatzak automatikoki behin betiko onspena eman dio.**

11.3.- NASUVINSA, Nafarroa Ezagutu Sarera atxikitzea. Estatutuak sinaturik egonda Udalburuak azaldu du “Red Explora” navarrara atxikitzea falta dela. Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5
Abstentzioak 1

Udalbatzak erabaki du:

- 1.- Red Explora Elkartera atxikitzea.**
- 2.- Akordioa interesdunei helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.**

12. MOZIOAK.

Ez daude moziarik.

13. GALDE-ESKEAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 19:38ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.